

Pertsona gazteak



**Lehen Aukera
programa**





01

Deialdiaren xedea

Beren tituluari lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak EUSKAL ENPRESEK praktiketan edo kontratu mugagabe batekin kontratatzeko bideratutako laguntzak arautzea.

Enpresek aukeratu ahal izango dituzte hautagaiak zuzenean edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez, deialdiaren 7.artikuluari xedatuari jarraituz:

- a. **Zuzenean** gazteak bere ikasketak egin dituen zentroarekin elkarlanean, behin enpresan deialdiaren 7.a) artikuluan xedatutako prestakuntza epealdiaren bat amaitu eta gero.
- b. **Eskaintza kudeatzeko eskatuz**, gainerako kasuetarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo haren kolaboratzaile den erakunde batean.

Interesdunek Lanbiden - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda eta langabezian egon beharko dute, datuak gaurkotuta dituztela.



02

Kontratatuako pertsonak bete beharreko baldintzak

01 16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago duten gazteak eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailer gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua egiterakoan langabea izatea.
- c. Honako multzo hauetakoren batean zehaztutako tituluren bat izatea:
 - Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana.
 - Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua - Boloniako Plana.
 - Araututako lanbide heziketako edo berariazko lanbide heziketako goi-edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
 - Oinarrizko lanbide heziketa.
 - Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
 - Profesionaltasun-ziurtagiria.
- d. Tituluarekin lotutako enpleguetan 6 hilabeteko esperientzia izatea gehienez ere.

02 Gazte Bermea Sisteman izena ematea:

- a. **Enpresak zuzenean** egindako hautaketa-prozesuan, kontratatutako gazteak **Gazte Bermea Sisteman izena emanda** egon beharko dute.
- b. **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere bulegoen edo zentro kolaboratzaileen bidez**, hautaketa-prozesuan, **lehenetsuna emango zaie Gazte Bermea Sisteman izena emanda** daudenei, urriaren 15eko 18/2014 Legeak, —hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak— ezarritakoari jarraituz.

03 Prestakuntza Duala egin duten enpresa berean gazteak zuzenean hautatuta egiten diren kontratuetan, prestakuntzaren xedea izan bada hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzea, **kontratu mugagabeak** izan beharko dute, **edo gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratuak**.

04 Lehen Aukera **praktikaldiko kontratuaren** modalitatea baliatuta **aurreko edizioen batean** kontratatu ziren pertsonak oraingo deialdiaren ondorioetarako kontuan har daitezke kontratu **mugagabearen modalitatean soilik**, jada eskuratu duten lan-esperientzia gorabehera, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa ez bada praktikaldiko kontratua egin zuen enpresa berbera.